

Agate Deuna



Otsailaren 5ean da Santa Ageda, Agata Cataniakoaren omenez, eta otsailaren 4an, bezperan, ospatzen da urtero. Emakumeari oso lotuta egon den irudia izan da Ageda.

Santa Ageda edo Agate Deuna Catanian, Sizilian, jaio zen 235. urtean. Tradizioak dioenez, Kintziano enperadorearen asmo eta nahiei aurre egin zien Agatak eta horregatik hiltzera kondenatua izan zen 252ko otsailaren 5ean. Bularrak moztu zizkioten eta hil arteko torturak sufritu zituen. Bularreko gaixotasunen zaindari bihurtu zuten Agata. Gerora, Eliza Katolikoak santu

izendatu eta otsailaren 5a aukeratu zuen bera omentzeko.

Agate Deuna haurdun zeuden emakumeen zaindaria ere izan zen. Horregatik garai batean Agate Deuna bezperan kanpaiak jotzen zituzten emakumeei erditze on bat opatzeko.

Zergatik jotzen dugu lurra makil batekin?

Gure tradizioak kristautasunari oso lotuta dauden arren, hori iritsi aurretik bazeuden erritu batzuk Euskal Herrian ospatzen zirenak. Aritu batzuen ustez, Agataren inguruko festek zerikusi handia dute inauteriekin, inaste edo kimatze garaiko erritoekin. Neguko solstizioaren ondoren, eguna luzatzen hasten denean, zuhaitz adarrak kimu berritzen hasten dira eta orduan izaten da zuhaitz adarrak inastea garaia. Garai hartako jendeak negu gorrian bete-betean sartuta zeudenean argitasunaren itzulera bilatzen zuen eta lurra esnatu nahian makilarekin kolpatzen omen zuten iluntasunaren garaiari bukaera emateko gogoz.

Naturaren esnatzea ospatzeko, mutilak kopla kantari ibiltzen ziren etxez etxe, janari eske; ondoren, bildutakoarekin afaltzen zuten mutil eta neska denek batera.

Kristautasuna Euskal Herrira zabaldu zenean, Agata Deuna eguna ezarri zen, beste ospakizun askorekin egin bezala. Elizak errito eta ospakizunak bereganatu eta itxura berri bat eman zien orduan. Erritu zaharren eta kristauen arteko nahasketak ekarri zuen gaur egungo ospakizuna.